

"Wikian pentsatzeak talde lanean pentsatzea esan nahi du. Beraz, ezaugarri honek bideratuko digu wikien erabilera hezkuntzan; beti ere, ikasleen lan biletak eta dokumentu irekien eraketak izan behar dira beraien erabileran kontutan izan beharreko aspektuak.

Anibal de la Torre, 2007



ZER DIRA?

Hawaiianoz "oso bizkor" adierazten duen hitzak, gaur egun, web argitalpen mota bati ematen dio izena.

Wikietan, blog-etan bezala, erabiltzaileek testuak, argazkiak, bideoak eta beste orrialde batzuetarako loturak argitaratu eta zabaldu ditzakete. Hau da, orokorrean **hipertestuen** berezko elementu oro azaldu daiteke.


Ez duzu oraindik oso argi? Egizu klik ondorengo hiperbinkuloan wikiak zer diren azaltzen duen eta Carlos Castaño EHU irakasleak eta IKT-eetan adituak aukeratutako bideo bat topatuko duzu. (Ingelesez dago)

<http://www.eduvlog.org/2007/06/explicando-qu-es-un-wiki.html>

ZE EZAUGARRI DITUZTE?

∕ ERREZTASUNA: Ikasgaietako edukiak argitaratzeko tresna oso-oso errazak dira.

- ∟ LANKIDETZA: Lankidetza (lan kolaboratiboa) bultzatzeko tresna baliagarriak dira. Artikuluak taldeka idaztea errazten dute, adibidez; Eta beraz, ikasgaiari lotutako jarrera egoki batzuk ebaluatzeko, besteak beste, oso erabilgarriak izan daitezke.



- ∟ BAT-BATEKOTASUNA: Berehala orrialdeak sortu eta hobetzeko bidea errazten diote erabiltzaileari ahalik eta askatasun gehien emanaz.
- ∟ EZ KRONOLOGIKOA: Wikiak ez dira era kronologiko batean antolatzen. Wikiak ez dute beraien edukia era lineal batean irakurtzera bultzatzen, hautazko nabigazio bat baizik. Hots, irakurleari benetan interesatzen zaiona bakarrik irakurri dezan bideak zabaltzen dizkiote.

WIKIAK HEZKUNTZARAKO BIDE

Ikasgaien didaktikarako wikien berezko ezaugarriak ondorengoak dira:

- ∟ Hezkuntzarako wikiak, normalean, betikoen wikietatik at gelditzen dira helburu eta tipologiari dagokionez; hau da, ez dira ez hiztegi ezta entziklopediak ere. Horrela beraien helburu eta edukiak oso ezberdinak izan daitezke: Ikasgaien portalak, ekintza repositorioak, baliabide didaktikoak, eta abar.
- ∟ Idazketa kolektiboa bultzatzeko tresna ezin hobeak dira dugu. Ikasleek beraien lan eta idazkiak besteei aurkezteaz gain, besteekin elkarlana (benetako talde lana sortuz) egin ditzakete. Hala ere, kasu batzuetan kolektibotasunaren ezaugarria galtzera ere heldu dira. Hau da, irakaslearen lan pertsonalerako leku bilakatzen dira (ohar kuaderno on-line bat adibidez).



Modu batean wikia era libre batean erabiltzen ari gara horrela, bere kolektibotasunarengatik lotuta sentitu gabe. Hau da, oso flexiblea den eta informazioa antolatzeko egokiagoa den tresna bat era guztiz askean erabiltzen ari gara. Horrela ematen du blogak wikia kontagiatu duela, eta hauetako asko sinadurarekin eta izen propioekin aurkezten dira. Hala ere, gure uste apalean, ikasgai batekin erlazionatutako wikiak azken era honetan erabiltzean herramientak duen potentzialik handiena alde batera usten da eta gaur egungo hezkuntza bide berrietatik aldendu egiten gara; berriro ere, nahiz eta herramienta moderno bat erabili betikotasunean jauziz.



- ∟ Era hauetako wikietan aurkezpenak berezko garrantzia hartzen du. Ikasgaiekin erlazionatutako beste hainbat aspektu bezala, wikiak ikasleentzako erakargarriak izatea garrantzitsua da. Beraz, wiki hauetan ikonoak, irudiak, kolorea, blog-ak... sartzea komenigarria izaten da.
- ∟ Wikien ezaugarrietako bat erabiltzaileen anonimatoa izan ohi da, hala ere, hezkuntza mailan ebaluatu eta prozesua “kontrolatu” eta zuzentzeko, hobe dugu denon izenak agertzea. Beraz, anonimotasuna ez da bertute bat izango.
- ∟ Wikian orrialde bat sortzean automatikoki kopia bat sortzen da. Era honetan, dokumentuaren bertsio ezberdinen historiko bat sortzen delarik. Ezaugarri tekniko hau benetan baliagarria suertatzen da hezkuntzan, zeren honek erraztu egiten du erabiltzea, hau da, denon lana galtzearen beldurrik ez dago horrela!

Beraz, zergatik erabili wikiak hezkuntzan?

- ✘ ikasleek benetan ezagutza, ez bakarrik berarentzako baizik eta besteekin elkarbanatzeko, sortzen dutela sentitzen dutelako.
- ✘ ekintza honen emaitza edozein leku eta momentutan eskuragarria da.

Guzti hau dela eta, gaur eguneko gizartean horren beharrezkoa diren jarrera eta balore batzuk lantzeko, Ikaskuntza Kolaboratiboa didaktika modu hori bultzatzeko tresna baliagarria izan daiteke.

HALA ERE, GOGORATU WIKIAK TRESNA BAT BAINO EZ DIRELA, BIDE BAT. BENETAN HEZKUNTZAN BIDE BERRIAK JORRATZEKO GURE IKUSPEGIA ETA PROPOSATZEN DUGUN PROGRAMA, HELBURUAK, METODOLOGIA ETA EKINTZA MOTAK ALDATZEA EZINBESTEKOA DUGU!

ADIBIDEAK:

Historian zehar leen WikiWikiWeb-a Ward Cunningham-ek sortu zuen. Berak eman zion izena kontzeptu berri honi, eta lehenengo WikiWiki zerbitzaria eraiki zuen 1995.urtean (Pórtalnd Pattern Repository).

2001 urtarrilean, Nupedia entziklopedia proiektuko sortzaileek, Jimbo Wables eta Larry Sangerrek, Wikipedia entziklopediaren oinarri gisa wiki bat erabiltzea erabaki zuten.



WIKIPEDIA



Horrela, gaur egun dagoen wikirik handiena Wikipediaren ingelesezko bertsioa dugu.

Hezkuntza mailan, ikasgai bati lotuta www.lauaxeta4a.pbwiki.com -en edo <http://gazelera.pbworks.com/> duzue benetako esperientzia pare bat. Hauek wiki bat dira, non eskola, instituto edo ikastolako edozein sartu daiteke edonondik. Baina, zauden ikasmilaren arabera proiektua ezberdina izango da. Beti ere irakurketaren ingurukoa.

Informazio iturri ezberdinak kontsultatzeko, informazio hori lantzeko, eta interesgarria ikusten badute, konpartitzeko aukera ematen die ikasleei eta benetan, ikaslea asko motibatzen dela bere lana, bere idatziak, azken finean berak egindakoa, interneten dagoela ea edonoren begibistan dagoela ikusten duenean.

Azken aspektu hau, egiten dena edonork ikusi eta idatzi dezakeela alegia, alde batetik “copyright”-aren kontzeptua lantzeko ere balio izan digu. Izan ere zenbat alditan egiten dute gure ikasleek “copy” “paste” testualki pegatu duten informazioa nondik atera duten aipatu barik? Beraiek idatzitako edonork ikusi dezakeela ulertzean eta “copy” “paste” hori delitua izan daitekeela ulertzean, beren eguneroko lanetan iturriak aipatzearen kontzeptuari askoz ere garantiza gehiago ematen hasi dira. Bestalde, edonork eduki berriak eskegi ditzakeela konturatzen direnean, beraiek sarritan kopiatzen dutena, agian “gezurra” edo gaizki egon daitekeela ulertzea eraman ditu baita ere. Izan ere, beraiek idazten badute, zergatik ez pentsatzea beraien moduko beste norbaitek idatzitako kopiatzen ari direla? Hortaz baliatuz, iturri ezberdinak kontrastatu beharraren kontzeptua ere lantzen ari gara, eta momentuz emaitzak nahiko positiboak izaten ari direla esan daiteke.

Hala ere badaude pertsona bakar batek kudeatzen dituen wikiak Horren adibide garbi bat <http://gizartehizkuntza.wikispaces.com/>. Wiki honetan kudeatzaileak berak aukeratzen eta antolatzen ditu edukiak ondoren edonork erabili dezakegularik.

Ikastaroa: **Teknologia berriak hezkuntzan**
Irakaslea: **Aitor Pagalday**
Data: **2009ko uztailaren 1, 2 eta 3an**



Azalpen guzti hau eta gero, hobe duzu berriro ere wikian sartu eta aztertzea!!

MATERIAL OSAGARRIA:

<http://www.eduvlog.org/2007/05/la-bibliografa-en-la-web-docente.html>

Castaño, Carlos; Maiz, Inmaculada; Palacios, Gorka eta Villarroel, José Domingo:
Prácticas educativas en eternos Web 2.0, Madrid, Síntesis, 2008, 72-75 or.

NOLA SORTU?

Edozein ikasgairi lotutako wiki bat sortzeko ondorengo edozein web-orritara jo dezakezu eta bertako instrukzioak jarraitu. Saiatu! Benetan erreza da!



Pbwiki.com

Ingelesez dago, bere berezitasuna irudiak igo daitezkeela da.

Wiki.com

Ezaugarri nagusia erraztasuna du.

Wikispaces.com

Oso ona, nahiz eta publizitate nahiko intrusiboa duen.

Wetpaint

Ingelesez. . Erakargarria eta erabiltzeko erraza da. Aukeratzeko hainbat txantilo eta opzio edo funtzio integratu azaltzen ditu. Guzti hauek zabalik utzi daitezke edozeinek editatzeko edo era itxi batean pertsona konkretu batzuentzat soilik zehaztu.

Ikastaroa: **Teknologia berriak hezkuntzan**
Irakaslea: **Aitor Pagalday**
Data: **2009ko uztailaren 1, 2 eta 3an**



MediaWiki

Software librea da. Wikipediak erabiltzen du besteak beste.

Ikastaroa: **Teknologia berriak hezkuntzan**
Irakaslea: **Aitor Pagalday**
Data: **2009ko uztailaren 1, 2 eta 3an**



ARIKETAK:

UEUko ikteroen wiiki proiektuan parte hartu. Wikia <http://iktueu09.pbworks.com/> da, bertan denon artean gure wikia aurrera aterako dugu.. Zer egin jakiteko sar zaitetz wikian!